

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 203/2019 Foru DekretuA, abenduaren 17koa. Honen bidez, foru aldundien titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatuak diren bidesaridun bide-azpiegiturek erabiltzen dituzten pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia onartzen dira.

Foru Dekretu honek onartzen duen diru-laguntzen programaren helburua baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoei laguntza bat ematea da: Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi izatea; zerga-egoitza bertan edukitzea, eta 2020. urtean Bizkaiko Foru Aldundiaren bidesaridun bide-azpiegiturek —zuzenean kudeatuak direnak— erabiltzea.

Bizkaiko ekonomia-ehuna sakabanatuta dago, geografikoki, hein handi batean, arrazoi orografikoak direla-eta.

Arrazoi horregatik, garraio publikoaren sarearen diseinuak eta exekutatzeko moduak ezin dute eman zerbitzu unibertsal bat, lurralde osoa hartzen duena. Horrenbestez, herritarrek garraio pribatura jo behar izaten dute hutsune hori betetzeko, beren jardueretarako egin behar dituzten joan-etorriak bermatu nahi badituzte. Joan-etorri horiek egiteko ahalmenik handieneko azpiegiturek erabiltzen dira batez ere, eta horietako batzuk kargapekoak dira.

Horrek desberdintasuna sortzen du mugikortasunerako aukera indibidualetan, eta ondorioak esanguratsuak dira; besteak beste, ekonomikoak, bidesariak ordaintzeak dakarren kostua dela-eta. Sustapen-neurri orok interes sozial bati erantzun behar dio, eta, programa honen kasuan, kostu ekonomiko horren parte bat konpentsatu nahi da. Horrela, baldintza-berdintasunerako urratsak emango dira mugikortasunaren arloko politika publikoan.

2011n, Herri Lan eta Garraio Saila zenaren diru-laguntzen plan estrategikoan diru-laguntzen ildo bat ezarri zen Bizkaian bizi eta AP-8aren Bizkaiko tartearen erabiltzaile ziren pertsona fisikoentzat.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 18ko 178/2018 Foru Dekretuaren bidez, foru aldundien titulartasuneko bidesaridun bide-azpiegituren erabiltzaile diren pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta 2019ko deialdia onartu zen.

Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Dekretu hau onesteko eskumena du, kargapeko bide-azpiegituren erabilerarekin lotutako sustapen-neurria baita. Izan ere, gai hori Aldundiaren eskumenekoa da, hala ezartzen baitute Autonomia Estatutuaren 10.34. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 a).8 artikulua.

Foru Dekretu hau izaera orokorreko xedapena denez, berau prestatu eta izapidetzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan ezarrita dagoen prozeduraren arabera jardun da. Bereziki nabarmendu da aurreko kontsulta publikoko eta informazio publikoko izapideak egin ez izana, dekretuaren edukiak ez baitu funtsezko aldaketarik egiten 2018 eta 2019 urteetako foru-dekretuetako edukian.

Foru Dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude ezarrita eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).



Esku-hartu nahi den arloari, hau da, errepideei dagokienez, ekimena abiarazi eta betearazteko eta programan arautzen diren diru-laguntzak ebatzeko eskumena Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatuarena da, Ahaldun Nagusiaren uztailaren 1erko 101/2019 eta 102/2019 Foru-Dekretuetan xedatutakoaren arabera (Dekretu bi horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2019ko uztailaren 2an).

Foru Aldundiari dagokio xedapen hau onartzeko eskumena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4. artikuluan eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridikoa arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Programa honetan arautzen diren diru-laguntzen kudeaketaren ardura Interbiak Bizkaia S.A., M.P., (Interbiak) sozietate publikoari ematen zaio, hari baitagokio bidesaridun azpiegitura horien ustiapena egitea Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoari eta Errepideen Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko finantzazio-irizpideei buruzko urriaren 26ko 3/2010 Foru Arauaren 13. artikuluaen arabera. Interbiak erakunde laguntzaile gisa jardungo du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 11.2. artikulua aplikatuz.

Azkenean hau jakinarazten da. aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako V. Foru Planean 2016-2019 eperako diseinatutako estrategiak eta jarduketak biltzen dira, arlo horretan sortzen diren erronkei erantzun ahal izateko. Beharrezkoa da lanean jarraitzea emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzearren. Horrela Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak bere helburuak zehaztu zituen, eta haien arteko bat da, hain zuzen ere, sailaren laguntzen eta diru-laguntzen deialdietan zeharkako bihurtzea generoaren ikuspegia, sailak funtseko tresnatzat jotzen baitu zeharkakotasun hori, gizarteari ezagutarazteko zein den berdintasunak duen garrantzia.

Horrenbestez, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko abenduaren 17ko bileran aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

XEDEA ETA ENTITATE ONURADUNAK

1. artikulua.— *Foru Dekretuaren xedea*

Foru Dekretu honen xedea hau da: foru aldundien titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatuak diren bidesaridun bide-azpiegiturak erabiltzen dituzten pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta 2019ko deialdia onartzen dira. Pertsona horiek Bizkaian bizi behar dute, bertan izan behar dute zerga-egoitza, eta Bizkaia, Gipuzkoa edo Arabako foru aldundien titulartasuneko bidesaridun bide-azpiegituren erabiltzaile izan. Diru-laguntza horiek 10. eta 11. artikuluetan definituriko erabilera-modalitateekin bat emango dira, 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra (biak barne) bitarteko joan-etorriak direla-eta.

2. artikulua.— *Onuradunen betekizunak*

Foru Dekretu honen bidez arautzen diren diru-laguntzen onuradun izateko, pertsona fisikoa izan behar da, bide-azpiegituren erabiltzaile, eta ezein jarduera profesional, enpresarial edo ekonomikori atxikita ez dagoen ibilgailu arin batekin egin behar dira joan-etorriak. Onuradun izateko, orobat bete behar dira baldintza hauek:

- Egoitza soziala eta egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- Indarrean edukitzea gida-baimen pertsonala.



- Bizkai, Gipuzkoa edo Arabako foru aldundien titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatuak diren bidesaridun bide-azpiegituretako baten edo batzuen erabiltzaile izatea.
- Identifikatu eta ordaintzeko gailu telematikoak (OBE) izatea, eta haren bidez ordaintzea aurreko paragrafoan aipatzen diren joan-etorriak. Gailua pertsonala eta betereenezina izango da.
- Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzeari dagozkionak.
- Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera. Ezin izango dute onuradun egoera inola ere lortu, berdintasun-printzipioen aurkako jokaera edo ibilbidea duten pertsona fisikoek, ezta arau-hauste larriagatik zigortutakoak edo erabaki administratiboagatik zigortuak edo epailearen sententzia irmoak, Langileen Estatutuaren edo ta hitzarmen kolektibo aplikagarriko tratu-berdintasunaren aukera gaineko beharrak ez bete-teagatik, sexu-arrazoiagatik erabaki diskriminatzaileengatik; laneko sexu-jazarpenagatik, hauek denak martxoaren 22ko, 3/2007 lege organikoan emakumeetako eta gizonetako berdintasun eraginkorrerako ezarritakoaren arabera.
- Ez egotea Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen dituen inguruabarretariko batean ere; eskabidean dagoen adierazpenaren bidez egiaztatuko da baldintza hori.

Baldintza horiek eskabideak ondorioak dituen hilabetearen amaieran egiaztatu behar dira, eta adjudikazio-proposamena eta ordainketa egiten direnean mantendu.

3. artikulua. – *Diruz lagundu daitekeen egitatea*

Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat: Bizkai, Gipuzkoa edo Arabako foru aldundien titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatuak diren bidesaridun bide-azpiegituretako erabiltzaia.

4. artikulua. – *Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak*

Honako hauek joko dira diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat: Bizkai, Gipuzkoa edo Arabako foru aldundien titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatuak diren bidesaridun bide-azpiegituretako bidesarien gastuak, 2020ko urtarrilaren 1ean 2020eko abenduaren 31n bitartean egiten direnak, 2. artikuluan jasotako baldintzak betetzen badira.

II. TITULUA PROZEDURA

5. artikulua. – *Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak*

1. Diru-laguntzetarako eskabideak programa honen I. eranskinean jasotako eredu normalizatuan aurkeztuko dira, eguneratutako agiri hauekin batera:
 - a) Eskatzailearen NANaren fotokopia (agiria indarrean egon behar da).
 - b) Gida-baimen pertsonalaren fotokopia (baimena indarrean egon behar da).
 - c) Jarduera profesional, enpresarial edo ekonomiko bati loturik ez dagoen erabilera partikularrerako ibilgailu arinaren zirkulazio baimena. Ibilgailu hori diru-laguntzaren eskaerari lotuta egon behar da, eta harekin egingo dira diru-laguntzaren xede diren joan-etorriak. Diru-laguntza eskabideari ibilgailu bakarra lotu ahal izango zaio.
 - d) Finantza-erakundeak emandako egiaztagiria, eskatzailearen izenean dagoen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzeko. Kontu horretan egingo da bidesari telematikoetako eta ibilgailuari lotuta duen bere titulartasuneko OBEaren zenbatekoen kargua.



- e) Diru-laguntza eskatzen duen pertsonak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek ziurtatzen dituena: Bizkaian erroldatuta dagoela eta zerga-egoitza Bizkaian duela; zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, diru-laguntzen erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 17.2 a) artikulua arabera, eta berariazko baimena ematen diela Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailari eta Interbiaki, diru-laguntzaren erakunde laguntzaile denez bere izenean eskatu ditzan informazio horiek egunean dituela egiaztatzeko datuak eta ziurtagiriak; ez duela inoiz jaso sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloko zehapenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera; eta diru-laguntza jasotzeko ez dagoela 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan adierazitako debeku-egoeretako batean ere (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du). Programa honen II. eranskinean jasotzen da erantzukizunpeko aitoren horren eredu normalizatua.

6. artikulua. — Eskabideak aurkezteko modua eta epea

1. Eskabideak aurkezteko epea programa hau onesten duen Foru Dekretua indarrean jartzen den egun berean hasiko da, eta 2020ko abenduaren 31n amaituko.
2. Eskaerak interesdunek eurek edo haien ordezkariak aurkeztu behar dituzte. Bi bide izango dituzte eskaerak aurkezteko: www.interbiak.bizkaia.eus, web orria, edo, zuzenean, Interbiaken bulegoak (Kanariar Uharteak 19-1, Bilbo).
3. Eskabideek eskatzen diren datuak eta agiriak falta badituzte, Interbiak erremendua egingo dio interesdunari, hamar egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio ezen hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.
4. Interbiak informazio osagarria eskatu ahal izango du, baldin eta, behar bezala arrazoituta, beharrezkotzat jotzen badu eskabidea ebazteko. Errekerimenduari erantzuten ez bazaio emandako epean, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela joko da, eta, ebazpena eman ondoren, eskaera artxibatu egingo da.
5. Eskaerak osorik eta zuzen aurkezten den egunetik aurrera edo eskatzaileari adierazi zaizkion akatsak zuzentzen diren egunetik eta hilabetetik aurrera izango ditu ondorioak. Diru-laguntza eman behar bada, dokumentazioa osorik eta zuzen jasotzen den edo akatsak zuzentzen diren hilaren lehenengo egunetik aplikatuko da laguntza.

7. artikulua. — Eskaerako datuak aldatzea

1. Programa honen indarraldian zehar aldaketaren bat gertatzen bada eskabideetako datuetan edo dokumentazio osagarrian, datuok aldatzeko eskaera (eta dokumentazio osoa eta zuzena) jasotzen den eguneko hilaren lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak aldaketa horrek.
2. Diru-laguntzaren hasierako eskaerari lotutako ibilgailuaren bigarren aldaketa eta hurrengoak Interbiaken bulegoetan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren beste edozein bulegotan egin ahal izango dira. Horretarako, dagozkion egiazttagiriak aurkeztu beharko dira.

8. artikulua. — Diru-laguntza emateko prozedura

1. Diru-laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidearen bitartez emango dira, honako bi araudi hauen babesean: Foru-administrazioak ematen dituen Diru-laguntzen Araubide Juridiko Orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikulua 1. zenbakia eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 42. artikulua 2. zenbakia.
2. Foru Aldundiaren 5/2005 Foru Arauko 20. artikulua arabera, dekretu hau gauzatzeko orduan, zera jotzen da norgehiagokarik gabeko prozeduratzat: eskaerak jaso ahala banatzea diru-funtsak. Hala, bada, eskabideek Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroan duten sarrera-dataren eta beharrezko dokumentazio osatu eta baliagarritasunez



sartzearen arabera ezarriko da eskarien lehentasuna, eta, deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurrekontuko zuzkidurek ahalbidetzen duten bitartean emango dira laguntzak.

3. Diru-laguntza hilerio eman edo ukatuko zaio eskatzaile bakoitzari, hilabete bakoitzeko ezarritako baldintzak betetzen dituen ala ez egiaztatu ondoren; laguntzen zenbatekoa aldi horretarako ezarritakoa izango da, 10. eta 11. artikuluetan arautzen diren diru-laguntzen modalitateekin bat.

4. Laguntzak jasotzea bateraezina izango da edozein administraziok edo sektore publikoko erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako ematen dituztenekin.

9. artikulua.— Diru-laguntzen modalitateak

Programa honen bidez arautzen diren diru-laguntzen jasotzaile izango dira zuzenean kudeatuak diren bidesaridun bide-azpiegiturak erabiltzen dituzten pertsona fisikoak, baldin eta azpiegitura horien erabilerarako modalitateetako bat edo biak erabiltzen badituzte (10. eta 11. artikuluetan deskribatzen dira modalitate horiek).

10. artikulua.— Diru-laguntza modalitatea: Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko azpiegituretako joan-etorriak

1. Diru-laguntza emango da Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatuak diren Bizkaiko Lurralde Historikoko bidesaridun bide-azpiegiturretan joan-etorriak egiteagatik, betiere OBE gailua erabiltzen bada bidesaria ordaintzeko, eta gailu horretan adierazita dagoen matrikula bat badator diru-laguntza eskaeran zehaztutako ibilgailuarenarekin.

2. Hau izango da diru-laguntzaren zenbatekoa:

a) Bidesarien kontzeptuan ordaindutako kostuaren %100 izango da baldin eta onuradunak hilean 32,63 euro (BEZa barne) baino gehiagoko gastua egiten badu Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatuak diren Bizkaiko Lurralde Historikoko bidesaridun bide-azpiegituretako edozeinetan, eta betiere kopuru horretatik gora eginiko gastua dela eta.

Beraz, goikoaren arabera, lehenengo 32,63 euroko gastua (BEZa barne) ez da diruz laguntzekoa izango.

b) Onuradunak ez badu aurreko letran adierazitako hileko kostua ordaindu, hau da, 32.63 euro baino gehiago (BEZa barne), laguntzaren zenbatekoa irizpide hauen arabera kalkulatu da:

1. Handienetik txikienera sailkatuko dira hil berean egindako bidaien zenbatekoak, lehen hamarrak izango direlarik zenbatekorik handienekoak. Hileko lehen hamar bidaiak horietan egindako gastuak ez du diru-laguntzarako eskubiderik sortuko.

2. Onuradunari hileko hamaikagarren (11) eta hogeita bosgarren (25) bidaien artean -biak barne- ordaindutako bidesarien zenbatekoaren %35 ordaintzeko diru-laguntza emango zaio (BEZa kenduta).

3. Onuradunari hileko hogeita seigarren (26) bidaiatik aurrera -bidaiak hori barne- ordaindutako bidesarien zenbatekoaren %45 ordaintzeko diru-laguntza emango zaio (BEZa kenduta).

11. artikulua.— Diru-laguntza modalitatea: Araba eta Gipuzkoako foru aldundien titulartasuneko azpiegituretako joan-etorriak

1. Diru-laguntza emango da Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru aldundien titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatuak diren bidesaridun bide-azpiegiturretan joan-etorriak egiteagatik, bidaiaren jatorria edo helmuga Bizkaia denean, betiere OBE gailua erabiltzen bada bidesaria ordaintzeko, eta gailu horretan adierazita dagoen matrikula bat badator diru-laguntza eskaeran zehaztutako ibilgailuarenarekin.



Diru-laguntza modalitate horretan, honako hau izango da diru-laguntzaren zenbatekoa: onuradunak bidesarien kontzeptuan ordaindutako kostuaren %100, hilean 47,74 euroko gastua edo gehiago egiten badu (BEZa barne).

2. Mugako eremuetako salbuespena. Zenbait bizkaitar, batez ere, Gipuzkoarekin mugakide diren Durangaldeko udalerrietan bizi direnak, AP-8 autobiderra Eibarren sartzen dira, hori baita hurbilen duten sarbidea. Durangaldeko edozein udalerritan erroldatuta dauden eta/edo zerga-egoitza bertan duten pertsona fisikoen kasuan, jatorria edo helmuga Eibarren eta/edo Arrasaten duten bidaiak diru-laguntza jaso dezaketen joan-etorritzat joko dira.

Era berean, zenbait bizkaitar, hain zuzen, Gipuzkoarekin mugakide diren Lea-Artibaiko udalerrietan bizi direnak AP-8 autobiderra Elgoibarren edo Itziarren sartzen dira, horiek baitira hurbilen dituzten sarbideak. Lea-Artibai eskualdeko edozein udalerritan erroldatuta dauden eta/edo zerga-egoitza ere bertan duten pertsona fisikoen kasuan, jatorria edo helmuga Elgoibarren eta/edo Itziarren duten bidaiak diru-laguntza jaso dezaketen joan-etorritzat joko dira.

12. artikulua.— Diru-laguntzarik jasoko ez duten joan-etorriak

Aurreko 10. eta 11. artikuluetan arautzen diren diru-laguntza modalitateen zenbatekoa kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko, zenbatekoa edozein delarik ere, hil bereko ehun eta berrogeita hamargarren (150) bidaiatik gorako joan-etorriak direla-eta ordaindutako bidesarien zenbatekorik.

13. artikulua.— Diru-laguntzak emateko prozedura antolatuta, instruitu eta ebazteko eskumena duten organoak

Diru-laguntzak emateko prozedura antolatzeko, instruitzeko eta ebazteko organo eskudunen osaeran, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkartza orekatuta dagoela; horrek esan nahi du bi sexuek ordezkartza izan behar dutela, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 20. artikuluan 4/2005 Legeak aurreikusitakoari jarraikiz.

kudeaketaren ardura Interbiak sozietate publikoak kudeatuko ditu diru-laguntzen eskabideak, hari baitagokio bidesaridun azpiegitura horien ustiapena egitea, Bizkaiko errepedetako bidesarien araubide juridikoari eta Errepideen Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko finantzazio-irizpideei buruzko urriaren 26ko 3/2010 Foru Arauaren 13. artikulua arabera. Interbiak erakunde laguntzaile gisa jardungo du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 11.2. artikulua aplikatuz. Gainera, arlo bakoitzean onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatuko du.

Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiak ebazpen-proposamena igorriko dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputuari, eta hark emango du ebazpena, dagokion foru aginduaren bidez.

14. artikulua.— Erakunde laguntzailea

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak badu, bere helburuak lortzeko, berari atxikitako foru sozietate publiko batzuen laguntza. Interbiak Bizkaia S.A., M.P., da sozietate horietako bat. Sozietate horrek diru-laguntza egitarauan esku hartuko du, erakunde laguntzaile gisa, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

Interbiak Bizkaia, S.A.M.P., sozietateak Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren izenean eta haren kontura jardungo du; sail hori izango da, ondorio guztietarako, Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzen emalea.

15. artikulua.— Ebazteko epea

8.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, diru-laguntza hileru eman edo ukatuko da; beraz, Foru Dekretu honen babesean eginiko eskabideak ebazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, ebazpen-egintzari dagokion hilabetea amaitzen denetik aurrera.

Organo eskudunak eskabide guztiak espresuki ebazteko betebeharrak gorabehera, ebazpenerako eta jakinarazpenerako epea amaitu bada ebazpen espresurik eman



gabe, eskabidea ezetsizat joko da administrazio-isiltasunaren ondorioz, horrela xedatzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua.

16. artikulua.— Ebazpenaren edukia eta jakinarazpena

1. Diru-laguntza behar bezala arrazoituta eman edo ukatzen duen foru agindua jakinarazteko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Administrazio Publikoan Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. eta 46. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Era berean, ebazpen hori bide elektronikoen bidez ere jakinaraziko zaio eskatzaileari, berariaz adierazi duen helbidean.

2. Dekretu honen babesean ematen diren diru-laguntzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira baldin eta guztira 3.000 eurotik gorako zenbatekoa gainditzen badute. Argitalpen hori diru-laguntza jaso den urte naturala amaitu ondoko lehen hiru hilabetean egingo da.

3. Gardentasunari buruzko Bizkaiko Foru Arauan jarritakoa betetzeko, behar diren baliabideak ezarriko dira emandako eskaerei dagokien informazioa emateko, pertsonal datu-babesari buruz dagoen araudia errespetatuz.

17. artikulua.— Errekurtsoak

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko titularrari, hilabete epean ebazpena argitaratzen denetik, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioan, bi hilabete epean, ebazpena argitaratzen denetik, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupetu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik. Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

18. artikulua.— Diru-laguntzari uko egitea

1. Onuradun izan den pertsona batek diru-laguntzari uko egiten badiu, diru-laguntza eman duen organoak erabaki ahal izango du zerrendako hurrengo eskatzaileei (ordena gordez) ematea, horren ondorioz nahikoa kreditu geratu bada kasuan kasuko eskabideetarako.

2. Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epe luzaezinean diru-laguntzarako proposamena onets dezaten. Behin eskatzaileek proposamena onartuta, administrazio-organok laguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo.

19. artikulua.— Ebazpena aldatzea

Aldaketarik gertatuz gero diru-laguntza emateko aintzat hartzen den inguruabarren batean (objektiboa izan zein subjektiboa), erakunde onuradunak nahitaez eman beharko dio aldaketon berri Interbiaki.

Diru-laguntza ematen duen organoak diru-laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzeko, bere kabuz, interesdunari entzun eta gero eta funtsak erabili aurretik, diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz lortu nahi zen interes publikoa lortzea oztopatu edo eragozten denean eta pertsona onuradunari kalte ekonomikorik ekartzen ez dionean.

20. artikulua.— Onuradunen betebeharrak

Foru Dekretu honetan diru-laguntzen onuradunentzat ezartzen diren betebeharez gainera, onuradunok Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12., 13., 31.5 eta 41. artikuluetan ezarritakoak ere bete beharko dituzte, hala nola:

- Zuzenean kudeatuak diren bide-azpiegituren erabiltzailea izatea, adierazitako betekizunekin bat.



- Diru-laguntza ematea funtsatzen duen jarduera egitea edo horretarako jokabidea hartzea.
- Hilabete bakoitzerako diru-laguntza eman duen erakundeari justifikatzea jarduera egin dela edo horretarako jokabidea hartu dela eta diru-laguntza emateko oinarri izan diren betekizunak betetzen direla.
- Diru-laguntza eman duen erakundeak egiten dituen egiaztapen-jardueren pean jartzea, bai eta diru-laguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jardueren eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren prozedura fiskalizatzaileen pean ere.
- Edozein administrazio edo erakunde publikok, nazionala izan zein nazioartekoa, diru-laguntza edo laguntzaren bat emanez gero xede bererako, diru-laguntza hau eman duen erakundeari horren berri ematea.
- Hilabete amaieran eta laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, onuradunek zerga betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzea. Ezingo dira onuradun izan lehenago jasotako beste diru-laguntzaren bat itzultzeko ordainketak egunean ez dituztenak. Diru-laguntza ez da ordainduko, harik eta pertsona onuradunak behar bezala egiaztatu arte egunean dituela zerga betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak. Horrenbestez, galdu egingo du ordaindu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea, eta dekretu honen 21. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa ez betetzearen ziozko prozedura abiaraziko da.

Edozelan ere, goian aipatu diren inguruabarrak egiaztatzeke ez da inongo erakunde-
ren ziurtagiririk aurkeztu behar. Izan ere, eskabidea aurkeztearekin batera, eskatzaileak
baimena ematen die Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari eta Interbiaki
zuzenean eta telematikoki eskura ditzaten inguruabarrok egiaztatzeke agiriak.

III. TITULUA

DIRU-LAGUNTZAK KUDEATZEA ETA JUSTIFIKATZEA

21. artikulua.— *Jarraipena*

Foru Dekretu honetan aurreikusten diren diru-laguntzak eskuratzen dituzten onura-
dunek agiri bidez frogatu beharko dute lagunduriko jarduerak egin direla eta diru-lagun-
tza jasotzeko baldintzak betetzen dituztela. Hori guztia, gainera, Foru Dekretu honetan,
dagokion deialdian nahiz esleipena dakarren foru aginduan aurreikusten den moduan
egin beharko dute, eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak nahiz ka-
suan-kasuan dagokion erakunde laguntzaileak eskatzen duen unean frogatu.

22. artikulua.— *Diru-laguntza ordaintzea eta aurrerakina jasotzeko aukera*

Diru-laguntzak hileru ordainduko dira, eskatzaileek aldi horretan Foru Dekretu hone-
tan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

Horretarako, Interbiak Bizkaia S.A., M.P., entitate kudeatzaileak Azpiegituretarako eta
Lurralde Garapenerako Sailari bidaliko dio diru-laguntzaren onuradunen zerrenda, de-
kretu honetan ezarritakoaren arabera eta diru-laguntza eman eta ordaintzeko baldintzak
betetzen dituztela ziurtatzen duen egiaztagiri bidez.

Diru-laguntzaren betebeharra aitortu eta hura ordaindu aurretik, pertsona onuradunek
zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

Ez dago diru-laguntzaren aurrerakinik ordaintzeko aukerarik.

23. artikulua.— *Itzultzea*

Onuradunek jasotako diru-laguntzak itzuli beharko dituzte baldin eta ez badituzte
betetzen Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra
ezartzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan eta Di-
ru-laguntzen Erregelamendua onesten duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Dekre-
tuaren III. tituluko I. kapituluan ezartzen diren betebeharrak.



Gehiegizko finantziarioa gertatzen bada aldi berean beste laguntza batzuk jasotzea-gatik (kasu hori 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan aurreikusita dago), behar denaren gainetik jasotako kopurua itzuli beharko da.

Edozein kasutan ere, dagokion berandutze-interesa aplikatuko da.

IV. TITULUA

EZ-BETETZE ETA ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

24. artikulua. — Ez betetzeak

Foru Dekretu honetan nahiz aplika daitezkeen beste arau batzuetan ezartzen diren baldintzak zein kasuan-kasuko ebazpenean ezartzen direnak betetzen ez badira, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra erregulatzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren xedatutakoa ezarriko da.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen xedatutako zehapen-prozedura erabiliko da.

25. artikulua. — Arau-haustek eta zehapenak

Programa honen bidez ematen diren diru-laguntzak direla-eta aplika daitezkeen arau-hausteen eta zehapenen araubidea Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren ezarritakoa izango da.

26. artikulua. — Araubide juridikoa

Programa honetan ezarritakoaren arabera ematen diren diru-laguntzek programan bertan ezarritakoa bete beharko dute, bai eta hauetan xedatutakoa ere: 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena; Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez onartzen baita 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen diru-laguntzen araubidea, bai eta aplikatzekoak diren gainerako arau guztiak ere.

Halaber, otsailaren 17ko 1/2016 Foru-Araua, Bizkaiaren gardentasuneko, aplikazioa izango da.

XEDAPENAK GEHIGARRIAK

